

# DONOSTIKO

## EUSKAL INDAR-NEURTZEETAN

---

# EGINTZA

---

**E**USKAL-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera leku on-tan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakua dan aurten izkribatzalleen indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duben sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak batzarreak erabaki du era ontan:

Bigarren zatian irabazi du saria Pedro Migel Urruzuno ta Salegi jaunak bere idazti «Auzi bat» izendatutako lan egokiaren gatik.

*Aldeera* ta ogeitabost peseta, Emiliano Mujika Lazkibar jaunak «Eguzkiaren azken agurra» izentzat duben moldaera apañagatik.

Aldeera, Nikasio Larrea jaunak, bere idazti «Lasterketa ta Martin Kankallu» izendatutakoa gatik.

Irugarren zatian, irabazi du saria, Emiliano Mujika Lazkibar jaunak, «Alaitasunean beti miña» izentzat duben neurtitz gain gañekoa gatik.

Jaun onek iru urte errenketan irabazi du sari au bera, ta orrengatik batzarreak erabaki du «indar-neurtzez kanpora» otsandetzia.

Irabazi dituzte aldeerak, eta ogeitabost peseta : Jules Moulrier, Manuel Lecuona ta Echaveguren, Fray Antonio Arruti ta Olaizola, jaunak, «Tsorinuen arrangurak», «Erniyo-ko gurutzia», ta «Erroma-ko foro-ari begira» izendatutakoa gatik.

Bese *aldeera* bat irabazi du Jose Elzo Azpiazu jaunak, «Europa-ri» izentzat duten neurtitz jatorra gatik.

Irabazi dituzte *Aipamen onragarriak*: Jose Elzo Azpiazu, Pedro Miguel Urruzuno ta Salegui, Cayetano S. Irure, Jose Elzo Azpiazu ta Ramon Guelbenzu Iribar jaunak, «Aiton baten otoitza», «Acuna ta Larrosa», «Artzai on baten bizitza » ta «Unie zurtzaren negarra» «Ama..... alaba..... eta.....» izendatutakoa gatik.

Bostgarren zatian irabazi du saria Jose Inazio Garmendia ta Arruti jaunak, «Arbola» izentzat duben lan egokia gatik Azkenik, seigarren zatian, irabazi du saria Felipe Ayerbe jaunak, «Gabon gaba ta eguarrak» izendatutako lan egoki ta apaña gatik.

Donostia-n 1914-<sup>ko</sup> Abendua-ren 21-<sup>an</sup>.

TORIBIO ALZAGA

*Goarpelaria.*

MIGEL SALABERRIA

*Batzar-burua.*

